



Ula IRURETAGOIENA BUSTURIA - @ulissima05
Arkitektoa

Eraikuntza subiranotasuna

Etxe berri bat hastapenetik egiteko nahia dutenen artean gogoan egon ohi da elektrizitate, bero-gailu eta ur beroaren gastuaren igoeraren ziurgabetasunari ihes egiteko.

Diru gutxiago gastatu eta subiranotasun energetikoaren ametsaren konbinazio batek gidatua. Ingeniarien atea jo eta energia berriztagarrietan karta zabaltzen zaie: aerotermia, geotermia, biomasa-galdara, eguzki-panelak, tximinia-sistemak... Hauetariko zein egokitzen den jakiteko, bizitzareduan eta konfort-mailan gogoeta egiteko parada eskatzen da, eta edozein kasutan, diru-inbestitze bat suposatuko du, eraikuntza arruntetan erabiltzen diren instalazio sistemen aurrean garestiagoak baitira. Asko informatu eta galdetuta ere, apustu bat izango da, ez baitakigu zein energia izango den etorkizunean garestitzen dena, eta gainera, ohitu garen bizibaldintzekin (labea, argi artifiziela edozein unetan eta edozertarako, kozinatze robotak...) zaila gertatzen da sare nagusiekiko independentzia totala lortzea. Gauzak horrela, bizi-baloreak, diru-kantitatea eta subiranotasun-nahiak nahasten dira berriztagarrien sistemen erabakian. Inork ez du esan etxe berri bat egitea erraza denik, dirutza bat inbestitzeaz aparte, galdera anitz zabaltzen direlako gure aurrean, aski deserosoak eta gure zenbait oinarri teoriko kolokan jar ditzaketenak.

Etxe berri bat hastapenetik eraikitzea dirudunen pribilegio bat bilakatu da. Jaraunspen batek ireki dezake aukera batzuetan, baina gainontzekoentzat... Zorua prezioa lurralde gehienetan asko garestitu da etxebizitza eraikuntzaren espekulazioagatik, eta eraikuntzaren eskulana enkargatu egiten dugu, ezjakintasunaz aparte, lan gogorra baita. Etxearen babesa eta elikagai osasuntsuak eskuratzea, bizitzaren oinarritzko alor nagusietako bi, industrializazio prozesuan sartu eta eskulan merkeko lan bilakatu ditugu. Eskurapen garestiak diren ideia sustraitu dugu errealtate finko gisa. A ze mundu kurio-soa atera zaiguna.

Eraikuntzan badira bestelako aktibistak, eraikuntza subiranotasuna defendatzen dutenak. Etxe bat hastapenetik egiteak ez duela zertan pribilegio bat izan defendatzen dutenak. Horretarako taktika, letxuga eta

atunarekin egiten dugun bezala: egin beharrekoa ahalik eta industrializazio prozesu txikienarekin lortu eta eskulana gure gain hartu, bizitzeko garrantzitsua den horretan denbora eta dedikazioa inbestituz. Akaso ondoko komunitatearen kolaborazioa eskatu beharko dugu, indibidualismoa gaindituz. Inguruari begiratuz gero, gure etxearen osagai materialak topatuko ditugu: buztina. Harea. Harrixkak. Kareia. Lastoa. Kalamua. Egurra. Eskuen neurriko materialak. Eta arkitekturari buruz, lekuak esango digu non kokatu etxea eta nola probestu lurraren baldintzak.

Tomateekin gertatzen den bezalaxe, azken produktua askoz osasungarriagoa izango bada ere, zenbait sinismen gainditzea eskatuko du: lurrezko eraikuntzak hormigoizkoak adinako iraunkortasuna du eta kimikorik gabe etxeak natural izerdituko du; eraikuntza garaikideak ahaztutako kontzeptua. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA